


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO EKAINA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2004ko ekainean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko ekaina, 2003ko ekainarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %5,5 gehitu ziren.

2004ko ekainean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta ekaineko urte arteko tasa %5,5era iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*)Emandako hazkundea ekaineko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2004ko ekainean, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 igo ziren.

Eraikuntza eta *obra zibila* azpisektoreek oso antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,2 igo zen *eraikuntza* eta %0,1 *obra zibileko* lehengaien kostuak, hau da, hamarren bat gutxiago. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ikusiko dugu kontsumitutako lehengaei dagokienez ere ibilbide homogeenak izan zituztela: *eraikuntzako* lehengaien kostuak %6,2 igo ziren eta *obra zibilekoak* %6,3.

Ekainean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *metalezko hoditeria* (%4,0), *erabilitako makineria-osagarriak* (%2,3), *esku-erremintak* (%1,6), *burdina eta altzairua* (%1,3) eta *zementu artifiziala* (%1,2) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten, besteak beste, *petroliotik eratorriak* (%-4,6), *garbitzeko eta txukuntzeko materiala* (%-2,3), *leherkariak eta gasak* (%-1,7) eta *energia elektrikoa* (%-1,6) lehengaiak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *metalezko hoditeria* (%35,4), *burdina eta altzairua* (%25,2), *asfalto-produktuak* (%15,5), *petroliotik eratorriak* (%13,3) eta *zementutik eratorriak* (%7,4) lehengaiak. Bestalde, urteko arteko prezioetan (2004ko ekaina, 2003ko ekainaren gainean), murrizketak izan zituzten *harri elaboratua* (%-7,2), *beira* (%-3,9), *energia elektrikoa* (%-3,0), *bulego-materiala* (%-2,5) eta *plastikozko hoditeria* (%-0,5) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO EKAINA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	113,4	0,1	5,5	5,4	
ERAIKINAK	113,3	0,1	5,5	5,5	
OBRA ZIBILA	113,8	0,1	5,4	5,0	
LEHENGAIEN KOSTUA	110,3	0,2	6,2	6,2	
ERAIKINAK	110,3	0,2	6,2	6,2	
OBRA ZIBILA	110,2	0,1	6,3	5,8	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,6	0,0	3,8	3,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es